

PRESOEN SUIZIDIOA

Zer gertatzen da kartzela barruan?

Preso dauden pertsonen artean portaera suizida areagotu egiten da, faktore psikologiko eta soziodemografikoengatik. Hego Euskal Herrian, 2023an, bi presok egin zuten beren buruaz beste astebetean. Orain gutxi, Eusko Jaurlaritzak “laguntzarako presoek” irudia indartzen duen protokolo berria jarri du martxan.

 LEIRE RODRIGUEZ GARMENDIA

Suizidioak osasun publikoko arazo garrantzitsua izaten jarraitzen du oraindik ere, eta mundu osoko lehen heriotza kausa ez naturala da. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, 700.000 pertsona inguruk egiten dute bere buruaz beste urtero, eta beste asko saiakeran geratzen dira.

OMEk eta Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Elkarteak suizidioaren prebentziorako argitaratutako txostenaren arabera, bere buruaz beste egiten duten presoek gehiengoa epaiketaren zain dago, gizon gazteak dira (20-25 urte), ezkongabeak, eta oro har, legea lehen aldiz hautsi dutenak eta delitu txikiengatik atxilotuak izan direnak. Normalean, delitu horiek legez kanpoko substantziekin dute zerikusia. Bestalde, lau edo bost urte igaro ondoren beren buruaz beste egiten duten presoak zaharragoak izan ohi dira, 30-35 urte bitartekoak.

Preso dauden pertsonen artean, portaera suizida areagotu egiten da biztanleria orokorrarekin alderatuz gero, faktore askoren eraginez eta kartzelan egoteak

dakarren eragin psikologikoagatik. Eragiten du, besteak beste, bikotekidea eta seme-alabak kanpoan izateak, familieren laguntzarik ez izateak, migratzaile izateak, substantziaz abusatzeak, buru-nahasmenduren bat izateak, aurrez bere burua zauritu izanak... Hainbat ikerketaren arabera, substantziaz abusatzen dutenen suizidio tasa bigarren handiena da Europan. “Espetxean dauden pertsonen beren buruaz beste egiteko arriskua hamar aldiz handiagoa da, gainerako biztanleekin alderatuta”, Marta Aldanondo Arabako Salhaketako kideak azpimarratu duenez.

Presondegiek presoek osasuna eta segurtasuna babesteko erantzukizuna dute, eta hori egin ezean, legearen aurka egin daiteke. Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikulua jasotzen duenez, “kondenatuak oinarritzko eskubideak izango ditu; ordaindutako lana izateko eta Gizarte Segurantzaren onura guztiak izateko eskubidea izango du, baita kulturaz gozatzeko eta nortasuna guztiz garatzeko eskubidea ere”. Konstituzioa-

Espetxean dauden pertsonen beren buruaz beste egiteko arriskua hamar aldiz handiagoa da, gainerako biztanleekin alderatuta

ren arabera, askatasun-gabetze zigorrak birgizarteratzeraz bideratu behar dira. Oro har, espetxean dauden pertsonen eskubidea dute intimitaterako eta osasun eta segurtasun baldintza onak izateko. Baita eskubide politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak izateko ere.

SUIZIDIOAK SAIHESTEKO, IKUSPEGI ZABALAGOA

Osasun profesional nahikoa ez izatea gero eta arazo handiagoa da azken urteetan. Osasun mentalaren arloan ere, psikologoek urritasunak eragin negatiboa du pazienteen arretan eta zaintzan.



“ ”

Mingarriagoa izan da batzuetan biolentzia instituzionala, heriotza bera baino

Malek preso zegoen Zaballan, 2020ko irailetik. 2023ko otsailaren 28an, bertsio ofizialaren arabera, bere buruaz beste egin zuen eta ez zegoen suizidioaren prebentziorako programan sartuta, horretarako “zantzurik” ez zegoelako, Eusko Jaurlearitzako Bingen Zupiria sailburuaren arabera. Bozera-maileak esan zuen “harriduraz” hartu zuela berria, eta espetxeak informazioa eta “laguntza” emango ziola familiari. Maleken familia diren Zuriñe Rodríguez eta Ana Álvarezek, ordea, euskal administrazioaren laguntza eza, traba burokratikoak eta arrazakeria salatu dituzte.

Bazenekiten Malek egoera latzean zegoela, bisita batean berak hala jakinarazita. Aukera izan al zenuten presondegiko norbaiti abisua pasatzeko?

Ez, baina ez genuen espetxeko inor ohartarazi beharrik, ezin da familiarengan jarri abisuaren erantzukizuna. Horrek eragina izan zezakeen Malekengan, ez zelako bere borondatea errespetatzen. Izan ere, bere egoeraz eta laguntza eskatzeko aukeraz hitz egin genuen berarekin.

Asko dira droga-menpekotasuna sufritzen duten pertsonak espetxean. Maleken kasuan, droga kontsumoa nabarmen igo zuela ziurtatu duzue. Nahiko kontrol al dago espetxeetan droga kontsumoarekin?

Ez, guztiz kontrakoa. Hain zuzen, espetxetik kanpo inoiz kontsumitu ez zituen substantzia batzuk kontsumitzen hasi zen Malek. Presoak kontrolatzeko, espetxeetako langileek droga sartzen dute, eta desintoxikazio programak ere ez dira guztientzat eskuragarri. Zuzendaritzarekin bildu ginenean esan ziguten senideak direla droga sartzearen erantzuleak. Aski da. Pandemian heroina asko sartu zen eta ez zegoen bisitarik.



Zuriñe Rodríguez (ezkerrean) eta Ana Álvarezek utzitako irudia da. Maleken heriotzaren astean atera zuten argazkia, “elkar zaintzen”.

“ ”

Malek-ek ez zuen tratamendu terapeutiko integralik izan. Hilabete eta erdi lehenago suizidio saiakera bat izan zuen, eta agerian geratu zen bere egoera zein zen”

Bertsio ofizialaren arabera, Malekek bere buruaz beste egin zuen, nahiz eta ez zegoen suizidioen aurkako protokoloan, espetxeko zaintzako langileek ez zutelako horretarako arriskurik ikusi. Baina hil aurretik suizidatzeko beste saiakera bat egin

zuen. Zerk huts egin du?

Ez zuen tratamendu terapeutiko integralik izan. Hilabete eta erdi lehenago suizidio saiakera bat izan zuen, eta agerian geratu zen bere egoera zein zen. Malek ez zen medikuez fio, tratamendua ez delako beti egokia izaten. Beraz, haiek azaldu beharko dute zerk huts egin duen.

Arazoak izan dituzue Maleken pasaporte eta heriotza agiria eskuratzeko; horiek gabe ezinezkoa zen gorpua Aljeriara bidaltzea. Zer gertatu da?

Pasaporte atxiloketa egunean entregatu zen, eta heriotza egunean ez zitzaigun itzuli. Bistan denez, arduragabekeria dago. Pertsona baten zaintza baduzu, dokumentazioa jasota izan behar duzu. Galdu egin zuten. Gogorra da esatea, baina mingarriagoa izan zen batzuetan biolentzia instituzionala, heriotza bera baino.

Nolakoa izan da euskal administrazioaren tratua prozesu burokratikoan zehar?

Oro har, tratua gizatasunik gabekoa izan da. Sailburuak publikoki esan zuen familiari laguntza emango ziotela, baina familiak jarri behar izan du haiekin harremanetan. Ez digute utzi ehorztetxea aukeratzen, eta hiletarako eta aberriratzeko dirua negoziatzerara behartu gaituzte. Gaur egun, ez dugu haien berririk izan. Salatu dugu.

Maleken heriotzaren aste berean, beste preso batek ere bere buruaz beste egin zuen.

Euskal administrazioa arduradun zuzena da, haien zaintzapean daude presoak. Orain gutxi Jaurlaritzak suizidio protokoloa aldatu du, baina horretarako, zenbat heriotza eta zarrata mediatiko behar izan da? Horrek agerian uzten du preso dauden pertsonetikiko duten interes eskasa.

Babesten al dira presoaren eskubideak?

Ez, eta ez bakarrik suizidioari lotuta. Ez dakigu espetxe baten barruan zer gertatzen den, ez dago horren kontrolik, eta ez dakigu eskubideak urratzen diren ala ez. Badira presoaren eskubideak zuzenean urratzen dituzten zigorrak, hala nola paseoak galaraztea edo ziegan egun luzez giltzaperatzea.

Nola saihestu daitezke suizidioak?

Prebentzioa da gakoa. Presoen, familien eta espetxeen artean koordinazioa egon behar dela esaten du protokolo berriak, baina horretarako harremana bestelakoa izan beharko litzateke. Senide batek ez du harreman ona izango espetxearekin, horrek senidearen eskubideak zigortzen eta urratzen baditu. Presoak, gainera, intimitaterako eskubidea du eta berak erabakitzen du bere egoera zeinekin partekatu nahi duen eta zeinakin ez. Kontrolaren ordez, arreta psikologiko integrala da behar dena.

Kontuan izan behar da hainbatetan osasun mentala eta suizidioa elkar lotuta doazela. Eta presondegietan lanean ari diren profesionalak baieztatu digutenez, espetxeetan dagoen osasun profesionalen falta gizartean oro har dagoena baino are handiagoa da, horrek dakarren guztiarekin.

Jose Mari Loizaga Hiesaren aurkako batzordeko kideak adierazi du "laguntzarako presoaren" figurak "modu oso garrantzitsuan" laguntzen duela suizidioa prebenitzen. Ziegan bere buruaz beste egiteko arriskuan daudenekin batera zelda berean jartzen diren presoak dira laguntzarako presoak. Loizagaren hitzetan, suizidatzeko arrisku hori duen pertsonak jakin behar du beste preso batekin egongo dela bere burua zauritu ez dezan, eta etengabeko laguntza horrez gain, eskuhartze psikologiko eta psikiatriko baten laguntza izan behar du.

Suizidioei aurre egiteko, ikuspegi zabalagoa behar da, bere buruaz beste egiteko arriskuan dauden presoek arreta emateko neurriak barne hartuko dituen, bai eta arrisku zeinuak antzemateko eta erantzun egokia emateko ere. "Oso zaila da eragozteko preso dagoen pertsona bat erabateko etsipenean ez erortzea, baina gure ingurunea hobetzea baino babes-pilula hobetirik ez dago, eta horretarako oinarritzko beharrak estali behar dira", gaineratu du Loizagak.

Suizidioak saihesteko, bizitzako eta espetxeko egonaldia hobetu behar dira. Loizagak azaldu duenez, ondorengo neurriak lagungarriak izan daitezke: espetxeetan osasun mentaleko langile gehiago izatea, espetxeratuei laguntza emozionala eta soziala emateko jarduerak sustatzea, bizi-baldintzak hobetzea eta gizarteratzeko politikak sustatzea, besteak beste.

BI HERIOTZEN OSTEAN, PROTOKOLO-ALDAKETA

2021eko urrian Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen EAEko hiru espetxeen kudeaketa: Zaballako (Araba), Basauriko (Bizkaia) eta Martuteneko (Gipuzkoa) kartzelak. Beatriz Artolazabal orduko Berritasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak azaldu zuenez,

“ ”

Ingurunea hobetzea baino babes-pilula hobetirik ez dago, eta horretarako oinarritzko beharrak estali behar dira”

Jose Mari Loizaga Hiesaren aurkako batzordea

lanaren ardatz nagusiak "genero-ikuspegia, biktimentzako arreta eta giza eskubideen defentsa" dira. Eta, gainera, gehitu zuen "justizia modernizatzea eta talde ahulenekiko hurbiltasuna" dituztela helburu, baina "presoen gizarteratzea eta laneratzea prestakuntza-ikuspegitik lortzeko bokazioa" ere.

Presoen aldeko Salhaketa elkarreko Marta Aldanondok adierazi du "oso hitz onekin" abiatu zutela eskumena, baina, oraingoz, Jaurlaritzaren kudeaketa zegoenaren jarraipena baino ez dela. Era berean, adierazi du "lan garrantzitsua" egin ahal izan zutela eskumena beren gain hartu baino lehen ere, baina "ez zutela egin".

Orain gutxi, Eusko Jaurlaritzako Justizia zuzendariak protokolo berria jarri du abian, aipatu dugun laguntzarako presoaren figura erdigunean kokatzen duena. Euskal espetxeek prestakuntza ikastaroak emango dizkiete preso horiei, hainbat gaitasun har ditzaten, eta ordainsariak jasoko dituzte. Protokoloak espetxeek 2014. urtean emandako jarraibideak eguneratzen ditu, eta erreferentzia gisa hartzen ditu beren buruaz beste egitea prebenitzeko Zaballako kartzelako programa eta Kataluniako espetxeen protokoloa.

Baina protokolo aldaketa ez da gertatu aste bakar batean bi heriotza izan diren arte; bat Zaballako espetxean, eta bestea Martutenekoan, pasa den martxoan. Hego Euskal Herrian, 2015etik hona hamar preso hil dira. ●